

**TITULO/TITLE:** Eguberri irudiak Ref: CM.2.0070 (SSA)  
**Compositor/Composer:** Josu Elberdin  
**Texto/Text:** Popular  
**Idioma/Language:** Euskera/Basque

## 1. ASTOA ESTALPEKOA

Asto txiki bat naiz  
Belenen zegoena  
Estalpe xume baten  
Jendeaz aparte

Tristerik nengoela  
Guztiok ahaztuta  
Hantxe paratu ziren  
Maria ta Jose

Belarriak astindu,  
Arrantza handi batez  
Agurtu egin nituen  
Pozik gonbidatuz  
Gerturatu egin ziren  
Nire alboan jarri  
Eta hantxe jaio egin zen  
Gure Jainko jauna

## 2. HAURTZOAREN ARDIA

Haurtxoa lo dago,  
Lasto epelen artean  
Eguna joan da  
Goiko izarren atzera.

Goizean artzaiak  
Laster etorri dira  
Aingeru txiki bat  
Agertu zaienean  
Ardi bat,  
Bildotsa zekartzaten opari  
Gizonen artean handiena denari.

Haurtxoa lo dago  
Ardiaren alboan,  
Eguna joan da  
Goiko izarren atzera.

Maria, alaituz  
jaso du oparia  
Utzirik ardia  
Umearen alboan.

Ardia izan da  
Jainkoaren babesa  
Beroa emanez  
Behar zuenean.

## 3. BALTASARREN GAMELUA

Dam, da, dam  
Dam, da, dam

Baltasar, Baltasar,  
Non zaude?  
Belena atera behar ginen  
Eta oraindik  
hemen galdurik gabiltza  
non demontre  
egongo gera gu  
jadanik haurra itxoiten  
egongo da.

Beti azkena  
Garaiz helduko  
Al gara noizbait?

Motelaren fama  
Jarria daukat  
Azkarrena izan da  
Mundu osoan

Nola lortuko dut Baltasar  
fama txar hau kentzea Baltasar!

Baltasar, non zaude?

Agudo goazen Belena  
Oraindik eta Baltasar!  
Garaiz gabiltza  
Non demontre sartu zera  
Orain Baltasar!

Haurra itxoiten egongo da  
Goazen Belena  
Goazen Belena!